**TOKIKO GOBERNU BATZARRA 2018KO EKAINAREN 19AN EGINIKO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaletxean, 2018ko ekainaren 19ko 09:00ak zirela, lehenengo deialdian eta Julen MENDOZA PEREZ esanetara (*Orereta/Errenteriako EHBildu*), ondoko zinegotziak elkartu dira:

***Orereta/Errenteriako EHBildu***

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA

**Errenteria IrabaziZ**

- Yon COLLAR RIOSECO
- Nagore BASURTO ESCAMILLA

Bertan dago, Egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin idazkaria.

**1. Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko ekainaren 5ean eginiko ohiko bilkurari dagokion aktaren irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.**

Oharrik gabe onartu da.

**2. OARSOALDEA SArekin lankidetza hitzarmenerako proposamena, ENPLEGU PLANA garatzeko TAO zerbitzua betetzen zuten langileei begira, zerbitzua udalaren esku geratu baita.**

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE JUNTA DE GOBIERNO LOCAL CELEBRADA EL DÍA 19 DE JUNIO DE 2018**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 09:00 horas del día 19 de junio de 2018, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de Julen MENDOZA PEREZ (*Orereta/Errenteriako EHBildu*), los siguientes Concejales:

***Orereta/Errenteriako EHBildu***

- Jaione KARRIKIRI GARAÑO
- Garazi LOPEZ DE ECHEZARRETA
- Jon TXASKO ORGILLES
- Bernardo LEMOS TABERNA

**Errenteria IrabaziZ**

- Yon COLLAR RIOSECO
- Nagore BASURTO ESCAMILLA

Asiste y da fe del Acto la Secretaria Nagore Sarasola Otermin.

**1. Lectura y aprobación en su caso del Acta correspondiente a la Sesión Ordinaria de fecha 5 de junio de 2018.**

Se aprueba sin observación alguna.

**2. Propuesta de formalización de un Convenio de colaboración con OARSOALDEA, S.A. para la asistencia en la ejecución de un PLAN DE EMPLEO dirigido a la recolocación del personal procedente de la remunicipalización del servicio de OTA .**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

**AURREKARIAK**

2017ko abenduaren 5ean trafiko eta aparkalekua kontrolatzeko (TAO) zerbitzu publikoaren kudeaketa kontratua amaitu zen, EYSA S.A. enpresarekin. Langileek urte mordoa eman dutenak zerbitzu hori ematen, agian enpresak ez ditu euren enpleguak mantenduko, eta behar bada langabezi egoerara pasa dira. Horregatik, Oarsoaldea Eskualdeko Garapen Agentziak enplegu planak egiten dituenez, langile horientzako enplegu plan berezia egiteko aukera aztertu eta baloratzeko proposamena dago.

Enplegu plan bat egitea proposatu da aurreko TAO zerbitzuan jardun duten langileei zuzendua, baldin eta aurreko enpresak lanposturik eman ez badie, edo hilabete hauetan zehar ez badute lan merkaturatzea lortu, egun langabezia egoeran egonik.

Eragindako langileak bederatzi dira, denera, eta zailtasun bereziak dituzte lan merkatuari begira, adinagatik eta beste lan arloetako lanetarako ez dutelako prestakuntzarik, aparkaleku kontrola lanaz aparte, beraz, aurrerantzean lanik ez topatzeko arriskua dago.

Enplegu planaren helburu nagusia da TAO zerbitzua udalaren esku geratzearen eragina kontuan hartu eta laguntza ematea lan kontratu berria lortzeko, baita kontratu berriaren lehen urteetan laguntza eskaintzea ere.

*Enplegurako tokiko planen* gaia Euskadiko Tokiko

**ANTECEDENTES**

Con fecha 5 de diciembre de 2017 finalizó el contrato de gestión de servicio público de control trafico y aparcamiento (OTA), con la empresa EYSA, S.A., y las y los trabajadores que durante muchos años han prestando este servicio, existe la posibilidad de que hayan pasado a situación de desempleo. Por esto, atendiendo a que la Agencia de Desarrollo Comarcal Oarsoaldea suele realizar planes de empleo, se ha propuesto se estudie y valore la posibilidad de realizar un plan de empleo específico para estos trabajadores y trabajadoras.

Se ha propuesto realizar un Plan de Empleo con los trabajadores y trabajadores del antiguo servicio de la OTA, que no han sido reubicados por la anterior empresa, o que en el trancurso de estos meses no han conseguido acceder al mercado laboral, encontrándose en la actualidad en desempleo.

Es preciso tener en cuenta que el colectivo de trabajadores afectado, 9 en total, se encuentra con dificultades especiales para su integración en el mercado laboral tanto por su edad como por la falta de cualificación a las necesidades actuales del empleo en otros ámbitos ajenos al control del aparcamiento, con riesgo alto de quedar excluidos de forma definitiva del mercado de trabajo.

El objeto principal de este plan de empleo es el de minimizar el impacto que la recuperación de la gestión del servicio de OTA tendrá en dichos trabajadores y pretende ofrecerles un apoyo en la consecución de un contrato de trabajo y, posteriormente, un acompañamiento durante los primeros años de contratación.

La ejecución de *planes locales de empleo* es una de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Erakundeei buruzko Legearen 17. ataleko 25. artikuluan zehazten diren gaietako bat da, udalek dauzkaten eskumenen artean egonik.

Horri buruz kontuan hartu behar da OARSOALDEA Eskualdeko Garapen Agentzia eskualdeko udalen baliabidea dela gizarte eta ekonomiaren garapena bultzatzeko, eta horretarako enplegu planak garatu eta bultzatu egiten ditu langabeziari aurre egiteko.

Enplegu plana Agentziak garatu dezake lankidetza hitzarmenaren bitartez, interes orokorraren mesedetan, horrela bi entitateek (Oarsoaldea eta Errenteriako Udala) elkarri ekarpena egiten diotela kontuan hartuz.

Hitzarmen planaren helburua da eragindako langileei sostengua, babesa eta laguntza emateko ekintza zehatzak ezartzea lan merkatura sartzerakoan, horretarako udalak bere gain hartzen du 208.414,26 euro finantzatzea, eta horrela adieraziko da hitzarmena onesteko txostenean kontu-hartzailearen txostenarekin bat etorriz.

Egiaztatu da hitzarmena ekonomikoki iraunkorra dela, 2018ko udal aurrekontuan aurreikuspen nahikoa dagoelako, eta dagokion gastua baimendu delako (A-983-2018).

Udaltzainburuak 2018ko ekainaren 14an txostena idatzi du.

Giza Baliabideetako Teknikariak 2018ko

las materias señaladas en el artículo 25 apartado 17 de la Ley de Instituciones Locales de Euskadi, entre las competencias propias que pueden ejecutar los municipios.

Al respecto hay que tener en cuenta que la Agencia de desarrollo Comarcal OARSOALDEA, es una herramienta instrumental de los Ayuntamientos de la comarca que tiene el objetivo de fomentar el desarrollo socio-económico de la misma, para lo cual desarrolla y la promueve planes de empleo contra el desempleo.

Es por esto que, el plan de empleo puede ser desarrollado por dicha Agencia mediante un convenio de colaboración en aras al interés general y recíproco de las dos entidades, Oarsoaldea y el Ayuntamiento de Errenteria.

El objetivo del convenio de colaboración es establecer las acciones concretas que persiguen el impulso, apoyo y acompañamiento de los trabajadores afectados en su acceso al mercado laboral, para lo cual el Ayuntamiento se obliga a financiar la cantidad de 208.414,26 € en los términos que se harán constar en el convenio, de conformidad con el informe del Interventor en el que queda autorizado el gasto.

Se ha constatado que el convenio es financieramente sostenible, al contar con la correspondiente consignación presupuestaria en el Presupuesto del ejercicio 2018, y al haberse autorizado el gasto (A-983-2018).

El Jefe de la Policia Local ha emitido informe con fecha 14 de junio de 2018.

La Técnica de Recursos Humanos ha emitido



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

ekainaren 12an txostena idatzi du.

informe con fecha 12 de junio de 2018.

Lehendakaritza Ordezkariaren proposamenez,

A propuesta de la Delegada de Presidencia,

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

1- Onartzea Errenteriako Udalaren eta Oarsoaldea Eskualdeko Garapen Agentziaren arteko lankidetza hitzarmena, TAO zerbitzuko langileak birkokatzeko enplegu plan bat egiteko. Helburua da langile propioekin zerbitzua emateko hartutako udal erabakiak izan dezakeen inpaktua gutxitzea, langileei laguntza emanez lan kontratu berri bat lortzeko, baita kontratu berriaren lehen urteetan laguntza eskainiz ere.

1.- Aprobar el Convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Errenteria y la Agencia de Desarrollo Comarcal Oarsoaldea S.A., para la ejecución de un plan de empleo de recolocación, cuyo objeto es el de minimizar el impacto que pudiera tener la decisión municipal de prestar el servicio de OTA con personal propio ofreciendo a las personas afectadas un apoyo y un acompañamiento no sólo hasta la consecución de un contrato de trabajo sino también a lo largo de los primeros años de contratación.

2.- Enplegu plan hori egite finantzatzea gehienez ere 208.414,26 €-rekin eta 2021. urtera arteko iraunaldia duelarik. Ekitaldi honetako aurrekontuan, bada 58.242,85 €-ko gastua aurrekontuaren 7386 -Oarsoaldea Enplegu plana TAO-GARABIA aplikazioaren gain(A-983-2018).

2.- Financiar la ejecución del citado plan de empleo con el máximo de 208.414,26 € y con vigencia hasta el año 2021. Para el presente ejercicio presupuestario, se dispone de un gasto de 58.242,85 € con cargo a la aplicación presupuestaria 7386 -Oarsoaldea Plan de Empleo OTA-GRUA (A-983-2018).

3.- Errenteriako alkateari, Mendoza jaunari, ahalmena ematea hitzarmen hori sinatzeko.

3.- Facultar al Alcalde de Errenteria, Sr. Mendoza, para la firma del Convenio citado.

4.- Erabaki honen berri ematea Oarsoaldea, S.A.-ri, Kontu-hartzailera eta Langileen Batzordeari. ari

4.- Comunicar el presente acuerdo a Oarsoaldea, S.A, a la Intervención Municipal y a la Junta de Personal.

**3. "Telefonia finko eta mugikorraren zerbitzuak" adjudikatzea.**

**3. Adjudicación de los "Servicios de telefonía fija y móvil"**

2018ko urtarrilaren 8ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, espedientea ireki zen “Telefonia finko eta

Visto que por Resolución de Alcaldía de fecha 8 de enero de 2018 se incoó expediente para la



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

mugikorraren zerbitzuak" kontratatzeko, prozedura Irekiaren bidez (hainbat irzipide).

contratación de los "Servicios de telefonía fija y móvil", mediante procedimiento Abierto (varios criterios).

Baliozko epean bi (2) proposamen aurkeztu dira, Igo LOTE-rako (Telefonia finkoa) eta enpresa hauenak dira: "TELEFÓNICA ESPAÑA, S.A.U." eta "EUSKALTEL, S.A." eta hiru (3) proposamen aurkeztu dira, II. LOTE-rako (Telefonia mugikorra) eta hauek dira: "TELEFÓNICA MÓVILES ESPAÑA, S.A.U."; "VODAFONE ESPAÑA, S.A.U." eta "EUSKALTEL, S.A.".

Visto que en plazo hábil se han presentado dos (2) proposiciones correspondientes a "TELEFÓNICA ESPAÑA, S.A.U." y "EUSKALTEL, S.A." para el LOTE 1 (Telefonía fija) y tres (3) proposiciones correspondientes a "TELEFÓNICA MÓVILES ESPAÑA, S.A.U."; "VODAFONE ESPAÑA, S.A.U." y "EUSKALTEL, S.A." para el LOTE 2 (Telefonía móvil).

Kontratazio Mahaiak 2018ko maiatzaren 21ean hartutako akordioaren bidez proposatu zen 1. LOTEA (Telefonia finkoa) Koldo Unanue Carazo jaunari esleitzea, "EUSKALTEL, S.A." (CIF: A-48766695) enpresaren izenean, interes publikoetarako onuragarriena delako. Adjudikazioari dagokionez, lehen urteko zenbatekoa 13.720,01 eurokoa izango da (BEZ barne) eta Internetera sartzeko abiadura 350MBekoa (IP duena eta IP gabea). Adjudikazioak bi (2) urteko iraupena izango du eta beste bi urtez luzatu ahal izango da.

Visto el acuerdo de la Mesa de Contratación de fecha 21 de mayo de 2018, proponiendo como adjudicatario del LOTE 1 (Telefonía fija) a D.Koldo Unanue Carazo, en representación de "EUSKALTEL, S.A." (CIF: A-48766695), al ser la más ventajosa para los intereses públicos, por un importe 13.720,01 euros (IVA incluido) para la primera anualidad y una velocidad de acceso a internet con IP y sin IP de 350MB y una duración de dos (2) años prorrogable por otros dos años más.

Kontratazio Mahaiak 2018ko maiatzaren 21ean hartutako akordioak lizitaziotik (2. LOTEA) kanpo utzi zuen "TELEFÓNICA MÓVILES ESPAÑA, S.A.U." enpresak aurkeztutako eskaintza, Kontratazio eta Ondareko Arduradunak emandako txostenari jarraiki. Txosten horretan adierazten du enpresa horrek ez duela BEZ banakatu aurkeztutako proposamen ekonomikoan eta, horrenbestez, eskaintzak BEZ barne duela ulertu behar dela. Lizitatzaileak argibideak aurkeztu ditu eta adierazi du eskaintza horrek ez duela BEZ barne. Horren ondorioz, Kontratazio eta Ondareko Arduradunak ageriko akatsa dela kontsideratu du.

Visto el acuerdo de la Mesa de Contratación de fecha 21 de mayo de 2018, excluyendo de la licitación (LOTE 2) la oferta presentada por "TELEFÓNICA MÓVILES ESPAÑA, S.A.U.", de conformidad con el informe emitido por el Responsable de Contratación y Patrimonio, en el que señala que no desglosa, esta empresa, en su propuesta económica el correspondiente IVA, por lo que ha de considerarse que la oferta tiene el IVA incluido, y habiendo presentado el licitador aclaraciones, indica que la oferta presentada no incluye el IVA, por lo que el Responsable de Contratación y Patrimonio señala que se considera



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

un error manifiesto.

Kontratazio Mahaiaren saio horretan bertan, proposatu zen 2. LOTEA (Telefonia mugikorra) Juan Antonio Gomara Arroyo eta Oscar Ortueta Jimeno jaunei esleitzea, “VODAFONE ESPAÑA, S.A.U.” (IFK: A-80907397) enpresaren izenean, interes publikoetarako onuragarriena delako. Adjudikazioari dagokionez, lehen urteko zenbatekoa 30.493 eurokoa izango da (BEZ barne) eta 1 nahiz 2 motetako datu-emaria 510 GB-koa hilean. Adjudikazioak bi (2) urteko iraupena izango du eta beste bi urtez luzatu ahal izango da.

Visto que en la misma sesión de la Mesa de Contratación, se propone como adjudicatario del LOTE II (Telefonía móvil) a D. Juan Antonio Gomara Arroyo y D. Oscar Ortueta Jimeno, en representación de “VODAFONE ESPAÑA, S.A.U.” (IFK: A-80907397), al ser la más ventajosa para los intereses públicos, por un importe de 30.493 euros (IVA incluido) para la primera anualidad y un caudal de datos para tipos 1 y 2 de 510 GB/mes y una duración de dos (2) años prorrogable por otros dos años más.

2018ko maiatzaren 24ko Alkatetzaren Ebazpen bidez, proposatutako adjudikazio-hartzaileei, eskatu zitzaien, hamar (10) laneguneko epean lizitazioa arautzen duen baldintza-agiriaren 15. Klausulan adierazitako dokumentazioa aurkez dezaten.

Visto que mediante Resolución de Alcaldía de fecha 24 de mayo de 2018 se requería a los adjudicatarios propuestos, para que en el plazo de diez (10) días hábiles aportaran la documentación indicada en la cláusula 15ª del pliego de condiciones que rige la licitación.

Interesatuek, eskaturiko dokumentazioa ekarri dute, baita 1.133,88 euroko zenbateko behin betiko bermea ere 1go LOTE-rako (Telefonia finko) eta 2.520,88 eurokoa 2. LOTE-rako (Telefonia mugikorra).

Visto que los interesados han presentado la documentación requerida y sendas garantías definitivas por importe de 1.133,88 euros para el LOTE 1: Telefonía fija y de 2.520,08 euros para el LOTE 2: Telefonía móvil.

Kontratazio Mahaiko buruaren proposamenez.

A propuesta del Presidente de la Mesa de Contratación.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

1.- Lizitazioa baliozkotzat jotzea eta lizitaziotik kanpo uztea “TELEFONICA MÓVILES ESPAÑA, S.A.U.” enpresak 2. LOTE-rako aurkeztutako eskaintza, Kontratazio Mahaiak egindako

1.- Declarar válida la licitación, excluyendo de la misma la oferta presentada por “TELEFONICA MÓVILES ESPAÑA, S.A.U.” para el LOTE 2 (Telefonia móvil), de conformidad con la propuesta



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

proposamenari nahiz Kontratazio eta Ondareko Arduradunak 2018ko maiatzaren 17ko txostenean adierazitakoari jarraiki.

de la Mesa de Contratación y lo señalado en su informe de fecha 17 de mayo de 2018, por el Responsable de Contratación y Patrimonio.

2.- Koldo Unanue Carazo Jaunari, "EUSKALTEL, S.A." enpresaren izenean (IFK: A-4866695) ADJUDIKATZEA "Telefonia finko eta mugikorraren zerbitzuak (Igo LOTEA: Telefonia finkoa)" emateko izeneko kontratua, 13.720,01 euroko (BEZa barne) zenbatekoarekin lehenengo urtebeterako eta 350MB IP-rekin eta IP-rik gabe internetera sartzeko abiadurarekin eta bi (2) urteko iraupenarekin, beste bi urtez luza daitekeena, interes publikoentzako eskaintzarik onuragarriena baita, betiere baldintza ekonomiko-administratiboen eta Teknikoen agirien arabera, hala nola espedientean jasota dagoen adjudikazio-hartzailearen eskaintzeri jarraiki. (A-05-44/2018).

2.- ADJUDICAR a D. Koldo Unanue Carazo, en representación de "EUSKALTEL, S.A." (CIF: A-48766695) el contrato para la prestación de los "Servicios de Telefonía fija y móvil (LOTE I: Telefonía fija)", por un importe de 13.720,01 euros (IVA incluido) para la primera anualidad y una velocidad de acceso a internet con IP y sin IP de 350MB y una duración de dos (2) años prorrogable por otros dos años más, de acuerdo con los Pliegos de condiciones Económico-Administrativas y Técnicas que han regido la licitación, así como con la oferta del adjudicatario, que consta en el expediente. (A-05-44/2018).

3.- Juan Antonio Gomara Arroyo eta Oscar Ortueta Jimeno Jaunei, "VODAFONE ESPAÑA, S.A.U." enpresaren izenean (IFK: A-80907397) ADJUDIKATZEA "Telefonia finko eta mugikorraren zerbitzuak (II. LOTEA: Telefonia mugikorra)" emateko izeneko kontratua, 30.493 euroko (BEZa barne) zenbatekoarekin lehenengo urtebeterako eta 510GB hileko 1 eta 2 motetarako datu emariarekin eta bi (2) urteko iraupenarekin, beste bi urtez luza daitekeena, interes publikoentzako eskaintzarik onuragarriena baita, betiere baldintza ekonomiko-administratiboen eta Teknikoen agirien arabera, hala nola espedientean jasota dagoen adjudikazio-hartzailearen eskaintzeri jarraiki. (A-05-45/2018).

3.- ADJUDICAR a D. Juan Antonio Gomara Arroyo y D. Oscar Ortueta Jimeno, en representación de "VODAFONE ESPAÑA, S.A.U." (IFK: A-80907397), como empresa adjudicataria de los "Servicios de Telefonía fija y móvil (LOTE II: Telefonía móvil)", por un importe de 30.493 euros (IVA incluido) para la primera anualidad y un caudal de datos para tipos 1 y 2 de 510 GB/mes y una duración de dos (2) años prorrogable por otros dos años más, de acuerdo con los Pliegos de condiciones Económico-Administrativas y Técnicas que han regido la licitación, así como con la oferta del adjudicatario, que consta en el expediente. (A-05-45/2018).

4.- JAKINARAZTEA adjudikazioa adjudikatzaile izan ez diren lizitatzaile guztiei.

4.- NOTIFICAR la adjudicación a todos los licitadores que no han resultado adjudicatarios.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

5- Era berean, ESKATZEA adjudikazio-hartzaileari 10 eguneko epean, adjudikazioaren jakinarazpena egin denetik kontatzen hasita, bertaratzeko Udaletxe honetan, modu horretan kontratua sinatu dadin administrazio dokumentuan.

5.- REQUERIR asimismo al adjudicatario para que en el plazo de 10 días a contar desde el siguiente a la notificación de la adjudicación, concurra ante este Ayuntamiento para la formalización del contrato en documento administrativo.

Kontratua sinatzeko ekitaldia Idazkaritza Orokorreko bulegoetan (Herriko plaza z/g - 2. solairua) egingo da Zerbitzuak hala eskatuta.

El acto de formalización del contrato se efectuará en las oficinas de Secretaría General (Herriko Plaza, s/n- 2º planta) a requerimiento del Servicio.

6.- ARGITARATZEA kontratuaren adjudikazioa, EBEO-n, GAO-n eta Errenteriako Udalaren kontratatzailearen profilean, iragarki baten bidez.

6.- PUBLICAR la adjudicación del contrato mediante anuncio en el DOUE, en el BOG y en el perfil del contratante del Ayuntamiento de Errenteria.

**4. Gipuzkoako Alzheirmerdun gaixoen senitartekoen elkartea "AFAGI" inskribatzea herriaren onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten elkarteen udal Erregistroan**

**4. Inscripción de la asociación Familiares, Amigos y personas con Alzheimer u otras demencias de Gipuzkoa "AFAGI" en el Registro municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin Animo de Lucro.**

Errenteriako Udalak, 2001eko irailaren 28an, Herriaren Onurakoak izan eta Dirua irabaztea xede ez duten elkarteen udal erregistroa arautzen duen erregelamendua onartu zuen.

Con fecha 28 de septiembre del 2001 el Ayuntamiento de Errenteria aprobó el Reglamento Regulador del Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin Ánimo de Lucro

2018ko maiatzaren 11ean Koldo Aulestia Urrutia jaunak **Gipuzkoako Alzheimerdun gaixoen senitartekoen elkartea "AFAGI"** erakundea ordezkatuz, aipatutako erregistroan inskribatzeko eskaera egin zuen.

Con fecha 11 de mayo de 2018, Koldo Aulestia Urrutia en representación de la **Asociación Familiares, Amigos y Personas con Alzheimer u otras demencias de Gipuzkoa "AFAGI"** solicita ser inscrito en dicho registro.

Espedientean, honako dokumentazioa ageria da:

En el expediente consta la siguiente documentación:

- Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan inskribitua dagoela adierazten duen agiriaren frogagiria.

- Certificado de inscripción de la entidad en el Registro General de Asociaciones del Gobierno Vasco.

- Elkartearen estatutuak.

- Estatutos de la Asociación.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

- Zuzendaritzako kargudunen zerrenda.

Gizarte zerbitzuak azpisaileko koordinatzaileak 2018ko ekainaren 11ean elkartea inskribatzearen aldeko txostena eman du.

Gizarte Zerbitzuak Azpisaileko Zinegotzi Delegaturaren proposamenez

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

**E R A B A K I  D U**

1.-**Gipuzkoako Alzheimerdun gaixoen senitartekoen elkartea "AFAGI"**, Herriaren Onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten Elkarteen Udal Erregistroan inskribatzea.

2.-Honen berri interesatuari eta kontuhartzailetzari ematea Udal Araudiko 9. artikuluko ondorioak izan ditzan.

**Gai zerrendatik kanpo UAOren 49. eta 64. artikuluen baitan eta aldez aurretik, aho batez, presazkoa jo eta gero eskuliburu berria indarrean sartuko delako hurrengo ohiko Tokiko Gobernu Batzordea ospatu aurretik, ondoko puntua aztertu dute:**

**5. Errenteriako Udalaren Kontratu Administratibo Txikien izapiderako eskuliburu berri baten onarpen proposamena.**

- Relación de las personas que ocupan cargos directivos.

La coordinadora de la subárea de servicios sociales con fecha 11 de junio de 2018 informa favorablemente la inscripción de la citada asociación.

A propuesta de la Concejala de la Subárea de Servicios Sociales.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**A C U E R D A**

1.- Proceder a la inscripción de la **Asociación Familiares, Amigos y Personas con Alzheimer u otras demencias de Gipuzkoa "AFAGI"** en el Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin Ánimo de Lucro.

2.- Dar cuenta al interesado así como a Intervención de Fondos Municipales a efectos del articulo 9 del reglamento Municipal.

**Fuera del Orden del Día y previa ratificación de su urgencia por unanimidad puesto que el nuevo Manual entrará en vigor con anterioridad a la celebración de la siguiente Junta de Gobierno Local ordinaria, de acuerdo con lo dispuesto en los arts. 49 y 64 del ROM pasa a tratarse el siguiente tema:**

**5. Propuesta de aprobación de un nuevo manual para la tramitación de los Contratos Administrativos Menores del Ayuntamiento de Errenteria.**



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

Errenteriako Udalak kontratazioari buruz duen barne araudia ondorengoa da:

En el Ayuntamiento de Errenteria existe la siguiente normativa interna relativa a contratación:

- Kontratazio Mahaiaren Erregelamendua, 2013ko martxoak 7ko alkatetza dekretu bidez onartua (GAO 2013/04/16).

- Reglamento de la Mesa de Contratación, aprobado mediante decreto de alcaldía de fecha 7 de marzo de 2013 (BOG 16/04/2013).

- Errenteriako Udaleko kontratazio txikiko prozedura administratiboen eskuliburua, 2016ko ekainak 1eko Tokiko Gobernuko Batzarreko akordioz onartua.

- Manual de los procedimientos administrativos de contratación menor del Ayuntamiento de Errenteria, aprobado mediante acuerdo de Junta de Gobierno Local de fecha 1 de junio de 2016

- Errenteriako Udalaren Araudi Organikoa, 2013ko apirilaren 29an Osoko Bilkuraren akordioz onartua (GAO 2011/06/2) eta 2013 urtean berritutakoa (GAO 2013/04/16) 94 artikuluari dagokionez eta Kontratazio Mahaiaren ingurukoa.

- Reglamento Orgánico del Ayuntamiento de Errenteria aprobado definitivamente mediante acuerdo plenario de 29 de abril de 2011 (BOG 2/06/2011) y modificado en 2013 (BOG 16/04/2013), en cuanto al artículo 94 del citado Reglamento, relativo a la Mesa de Contratación.

Sektore Publikoko kontratuen lege berria (9/2017 Legea) indarrean sartu denez beharrezkotzat jotzen da barne instrukzioi hori egokitzea kontratazio arloko araudi berriari eta Udalaren behar propioei. Modu horretan kontratu txikien espedienteak modu arinago batean egin daitezen baina era berean aplikagarri den araudiarekin bat etor daitezen ere.

Habiéndo entrado en vigor la nueva Ley de contratos del Sector Público (Ley9/2017) es necesario adecuar esta instrucción interna a la misma y a las necesidades del propio Ayuntamiento, de manera que los expedientes de contratos menores se realicen de forma más ágil pero que cumplan estrictamente con la legislación aplicable.

Une honetan, beharrezkoa da eskuliburu berri bat onartzea, horretarako testu berria aurkezten delarik eta horrela beronen onarpena eman dadin dagokion izapidearen bitartez.

Para ello, se considera necesaria la aprobación de un nuevo Manual , para lo cual se presenta el texto con el fin de proceder a su aprobación por el cauce correspondiente.

Zehazki, Eskuliburuak bere 1. atalan dioen moduan, honen xedea honako hau da:

En concreto, tal y como refiere el Manual en su articulo 1, constituye el objeto del mismo:

*1.- Izaera txikiko kontratazioen espedienteen tramitazio arrazionalagoa eta bateratuagoa lortzea, kontrolik eta segurtasun juridikorik gabeko*

*1º.- El logro de una tramitación más racional y uniforme de los expedientes de contratación menor, evitando en lo posible situaciones de descontrol e*



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

*egoerak ahal den neurrian saihestuz.*

*2.- Administrazioaren funtzionamenduan eraginkortasun handiagoa lortzea, kontratazio txikiaren esparruan kontratazio administratiboa arautzen duen legediak ematen dituen mekanismoak erabiliz.*

Bere onarpenera proposatutako testuak ezartzen dituen aldaketa nabarmenenak ondorengoak dira:

- Kontratu txiki bezala kontsideratzen dira beraien zenbateko balioetsia 15.000 euro baino gutxiago (gehi BEZ) zerbitzu eta hornidurako kontratuetarako eta 40.000 euro baino gutxiago (gehi BEZ) obretarako dituztenak.

- Kontratu txiki guztiak dagokion Sail edo Azpisailetan tramitatuko dira, Kontratazio Mahaiak espedienteak informatzeko beharrik gabe eta Kontratazio eta Ondarea azpi sailak izapidetu beharrik gabe.

- Espediente hauek espediente kudeatzailearen bidez eta horretarako sortutako espediente modeluaren bidez izapidetu ahal izango dira.

- Justifikatu egin beharko dira, kontratuaren xedea ez dela aldatzen ari kontratzioko arau orokorren aplikatzea ekiditzeko eta baita aurrekontu ekitaldi bakoitzean kontratistak ez duela bakarka edo batera 15.000 eurotako edo 40.000 eurotako zifra (gehi BEZ) gainditzen duen kontratu txikirik sinatu ere.

- 5.000 euro (gehi BEZ) baino gutxiagoko kontratu txikiak bereizten dira kontratu txikien espedientea-

*inseguridad jurídica.*

*2º.- La obtención de una mayor eficacia en el funcionamiento de la Administración mediante la utilización, en el ámbito de la contratación menor, de los mecanismos que proporciona la vigente legislación reguladora de la contratación administrativa.*

Las principales modificaciones que el texto sometido a aprobación introduce son las siguientes:

- Se consideran contratos menores los que tengan un valor estimado inferior a 15.000 euros (más IVA) para contratos de servicios y suministros y 40.000 euros (más IVA) para contratos de obras.

- Todos los contratos menores se tramitarán en las Areas y/o Subáreas, sin necesidad de que los expedientes sean informados por la Mesa de Contratación, ni ser tramitados por la Subárea de Contratación y Patrimonio.

- Estos expedientes se podrán tramitar a través del gestor de expedientes municipal, mediante el modelo de expediente creado al efecto.

- Deberá justificarse que no se está alterando el objeto del contrato para evitar la aplicación de las reglas generales de contratación y que el contratista no ha suscrito más contratos menores que individualmente o conjuntamente superen la cifra de 15.000 euros o 40.000 euros (más IVA) en cada ejercicio presupuestario.

- Se diferencian en cuanto a los requisitos del expediente a cumplimentar los contratos menores de



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net

ren betebeharrak betetzetik zenbateko hori gainditzen duten kontratuetatik.

menos de 5.000 euros (más IVA) de los que superen esta cantidad.

Kontratazio eta Ondare Saileko Arduradunak onartzearen aldeko txostena egin du

El Responsable del Área de Contratación y Patrimonio ha emitido informe favorable sobre la aprobación del mismo.

Lehendakaritza Ordezkariaren proposamenez,

A propuesta de la Delegada de Presidencia,

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

1.- ONARTZEA **Errenteriako Udalaren kontratu administratibo txikien izapiderako eskuliburua,** espedientearen barnean dagoena 2018ko uztailaren 2an indarrean sartzeko

1º.- APROBAR el **Manual para la tramitación de los contratos administrativos menores del Ayuntamiento de Errenteria**, que consta en el expediente para su entrada en vigor el 2 de julio del presente 2018.

2.- KOMUNIKATZEA onarpen hori, dagokien ondorioetarako, Errenteriako Udaleko Sail eta Departamentu guztietara.

2º.- COMUNICAR dicha aprobación, a los efectos oportunos, a todas las Áreas y Departamentos del Ayuntamiento de Errenteria.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:20 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Lehendakariak sinatu du. Egiaztatzen dut.

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 09:20 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al _____ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Presidente. Certifico.



C.I.F. P-2007200-E Herriko Plaza z/g. • Tfnoa: 943 449619 - Fax 943 449650 • 20100 ERRENTERIA(Gipuzkoa) • www.errenteria.net